

GIG 13

ARANTZAKO PORTUKO FLYSCH HAREATSUA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aginaga formazioko flysch hareatsua Geoparkean nabarmen azaleratzen da Sakonetako hondartzaren eta Andikaraerrekako inguruaren arteko itsaslabarraren zehar-ebakian. Formazio horrek 1.500 metro inguruko lodiera du, eta bereizgarri gisa aipatu behar da turbidita asko eta asko dituela Goi Kretazeoko (Campaniarreko) kareharrien eta tupen artean tartekatuta. Ugaritasun hori periodo horretan izandako erregresio batekin dago lotuta; izan ere, haren ondorioz, ekialdeko kono siliziklastiko handi bateko turbiditarik distalena Geoparkeko itsas hondoetara iritsi ziren progradazio bidez.

Arantzako portu inguruan hainbat berezitasun hautematen dira, formazioa nolako den garbi erakusten dutenak. Turbiditek lodiera dekametrikoa dute, eta haietan, erraz bereizten dira Bouma sekuentziak, osoak edo partzialak, eta xafladura konbolutuen, xafladura gurutzatuen eta pikor-mailaketa positiboen adibide garbiak. Eta batzuetan, gainera, xafladura gurutzatu horien eragileak izan diren rippleak bereiz daitezke gainaldean.

Iknofosilen adibideak ere nahiko erraz aurki daitezke; esate baterako, *Scolicias*, *Paleodyction*, *Chondrites*, *Granularia* eta *Helminthoida*. Batzuk azarnaz bete-betetako geruzatan daude eta erraz identifikatzen dira; beste zenbait, aldiz, txiki-txikiak dira eta isolatuta daude.

NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da itsaslabarrera Errota Berri atsedenekutik; gero, Portu-txikiko begiratokira joan behar da (interpretazio-taula bat dago han). GiGera iristeko, soka batetik jaitsi behar da lehendabizi, eta ondoren, bide arriskutsu batetik behera jo.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Begiratokitik ikuspegi ederra dago, baina xafladurak eta aztarna fosilak gertutik ikusteko, ezinbestekoa da itsaslabarrera jaitea.




Aginaga formazioaren ikuspegi orokorra: turbidita asko ditu tartekatuta, eta haietan, aztarna fosilak daude.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 556350 m / Y= 4794013 m / Alt.= 2 m



Scolicia bat, gertutik ikusita.